



Berrobi

UDALBATZARRERAKO DEIALDIA

Berrobiko Udalak 2015ko irailaren 24an iluntzeko 20:30etan Udaletxeko Pleno Aretoan egingo duen Ohizko Udal Batzarrera dei egiten dizut.

AZTERGAIAK

- 1) 2015ko ekainaren 13 eta uztailaren 2an eginiko Udalbatzarretako aktak onartzea.
- 2) Alkate-Dekretuen berri ematea.
- 3) "Askapena- Elkartasunerako aurkako epaiketa" Mozioa.
- 4) Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergaren salbuespena.
- 5) Galde-erreguak.

Berrobi, 2015ko irailak 17

ALKATEAK

Izp.: Joseba Iñigo Aiertza Mujika



CONVOCATORIA PARA EL PLENO

Convocatoria para la Sesión Ordinaria del Ayuntamiento de Berrobi, que se celebrará en esta Casa Consistorial el día 24 de septiembre de 2015 a las 20:30 horas.

ORDEN DEL DIA

- 1) Aprobación, si procede, de las actas de los Plenos celebrados los días 13 de junio y 2 de julio de 2015.
- 2) Dar cuenta y ratificación, si procede, de las Resoluciones adoptadas por el Alcalde.
- 3) Moción "Askapena- Juicio contra solidaridad".
- 4) Exención del Impuesto de Construcciones, instalaciones y obras.
- 5) Ruegos y preguntas.

Berrobi, a 17 de septiembre de 2015

EL ALCALDE

Fdo.: Joseba Iñigo Aiertza Mujika



Berrobi

UDALBATZARRAREN AKTA

Data: 2015ko irailak 24

Hasierako ordua: 20:30

Amaiera ordua: 21:15

Lekua: Berrobiko udaletxeko Batzar-aretoa.

Bertaratuak:

Joseba Iñigo Aiertza Mujika, Alkatea
Jose Odriozabala Garmendia, zinegotzia
Larraitz Esnaola Etxeberria, zinegotzia
Erlantz Allur Aramburu, zinegotzia
Igone Saldias Uranga, zinegotzia

Ana Larrarte Kerejeta, idazkaria.

Alkateak bilerari hasiera eman eta gai-zerrendako puntuei heltzen die.
Esan-eginak eta erabakiak

1) 2015ko EKAINAREN 13an ETA UZTAILAREN 2an EGINIKO UDALBATZARRETAKO AKTAK ONARTZEA.

Idazkariak laburtuz puntuz puntu irakurtzen ditu 2015ko ekainaren 13 eta uztailaren 2an eginiko Udalbatzarretako aktak. Alkateak bertaratuei galdetu die aktareekiko eragozpenik ba ote duten eta ezezkoa erantzun ondoren, bertaratuak ahobatez 2015ko ekainaren 13 eta uztilaren 2ko aktak onartzen dituzte.

2) ALKATEAK HARTUTAKO ERABAKIAK JAKINARAZI ETA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO

Azaroaren 28ko 2.568/1986 Dekretuaren 42. artikuluan xedatutakoaren arabera, Alkatetzak 2015ko maiatzaren 28a geroztik hartutako erabakien berri eman zaio Udalbatzarrari.

- 46/2015. Kreditu gehigarrien 1-2015 espedienteari hasiera ematea.
- 47/2015. Giza Larrialdietako dirulaguntza eskaera. 23/180-14 espedientea.
- 48/2015. Giza Larrialdietako dirulaguntza eskaera. 23/178-14 espedientea.
- 48-2/2015. Berrobiko Jubilatu etxeko tabernaren ustiapen zerbitzuaren esleipena.
- 49/2015. Herri bideak erabiltzeko baiemna.
- 50/2015. Giza Larrialdietako dirulaguntza eskaera. 23/180-14 espedientea.



Berrobi

- 51/2015. Giza Larrialdietako dirulaguntza eskaera. 23/178-14 espedientea.
- 52/2015. Fakturen onarpena.
- 53/2015. L.O.M. Lan baimena.
- 54/2015. Gipuzkoako Foru Aldundiko Foru Kontratazioen Zentralera Posta zerbitzua kontratatzeke espedientea atxikitzea.
- 55/2015 Idazkaritzan Bateriaezintasun eta jarduteko ezintasunei buruzko eta Ondaren ondasunei eta Sozietateen parte hartzeari buruzko Erregistroak eratzea.
- 56/2015. E.Z.M. Lurzatiketa baimena.
- 57/2015. Giza Larrialdietako dirulaguntza eskaera. 23/173-13 espedientea.
- 58/2015. A.L.I. Lan baimena.
- 59/2015. A.I.Lan baimena.
- 60/2015. J.I.Z.M. Lan baimena.
- 61/2015. Alkate ordean izendapena.
- 62/2015. 2015ko zaborbilketaren errolda onartzea.
- 63/2015. Giza Larrialdietako dirulaguntza eskaera. 23/180-14 espedientea.
- 64/2015. Giza Larrialdietako dirulaguntza eskaera. 23/178-14 espedientea.
- 65/2015. Giza Larrialdietako dirulaguntza eskaera. 23/173-13 espedientea.
- 66/2015. Alkatearen eskuordetzeak.
- 67/2015. Berrobiko Sorondo Sektoreko argiteri lanak exekutatzeko urratsak ematea.
- 68/2015. Giza Larrialdietako dirulaguntza eskaera. 23/173-13 espedientea.
- 69/2015. Giza Larrialdietako dirulaguntza eskaera. 23/190-15 espedientea.
- 70/2015. Kreditu gaikuntza espedienteari hasiera ematea.
- 71/2015. Kreditu Gaikuntza espedienteari onarpena ematea.
- 72/2015. Administrazio laguntzailearen lan metaketa ekiditzeko lan kontratazioa.
- 73/2015. Gipuzkoako Foru Aldundiari Berrobiko idazkari kontuhartzaile postua hutsik deklaratzeko proposamena.
- 74/2015. J.U.I. Lan baimena.

Batzarkideak jakinaren gainean daude.


3) “ASKAPENA- ELKARTASUNERAKO AURKAKO EPAIKETA” MOZIOA.

Idazkariak EHBILDU udal taldeak aurkeztu duen mozioa irakurri du.

Hitzez hitz honela dio:

“Elkartasuna da herrien arteko samurtasuna”. Oinarrizko printzipio bat da, gizakiak elkarbizitzarako lege eta araudiak, zuzenbidea eta irizpide etikoak sortu zituenetik. Hala ere, pertsonen nahiz herrien arteko elkartasun eza agerikoa da oso, geure mundu honetako gaitzen aurrean begiak itxi nahi ez dituenarentzat.

Elkartasunak, asmo onen bilduma hutsa izan ez dadin, bi baldintza bete behar ditu: batetik, gaiarekiko sentiberatasuna daukaten gizon-emakumeak antolatu ahal izatea; bestetik, gizarteak antolakunde horiek babestea egoki deritzen tresnekin. Udala da baldintza biak gauzatzearan erantzule, herritarren nahiarekin bat eginik.



Berrobi

Elkartasunezko internazionalismoak herri gisa beste herri batzuk babestea duhelburu, bidegabekeriaren benetako kausen aurkako borrokan, gurea ere baden borrokan; eta beti ere kanpoko esku-hartzearen aurkako jarreratik. Hori ez da lan erraza nazioarteko egoera gatazkatsuan, non laguntza humanitarioa xantaia politiko eta militar moduan erabiltzen den.

Udal honen aldetik, ezagutzen dugu nazioarteko elkartasunaren alorrean Askapenak 28 urte luzez eramandako jardura politikoa. Brigada internazionalisten bitartez, elkartasun kanpainen bitartez, bertoko nahiz nazioarteko topaguneetan bidegabekeriaren aurka egindako salaketan bitartez etab. Askapenak herrien arteko bidezko funtzionamendu demokratikorako ezinbesteko baloreak eman dizkio euskal gizarteari.

Hemen salatu nahi dugu Askapena fiskaltzaren ilegalizazio eskaerari aurre egin beharrean dagoela, Herriak Aske elkartarekin eta Elkar Truke SL-rekin batera; baita bost militanterentzat seina urteko kartzela zigorra eskatzen dutela ere, elkartasun internazionalistaren baitan egindako lanarengatik.

Hori guztia eskubide zibil eta politikoen aurkako beste eraso dela deritzogu. Jokabide horren atzean dauden helburu politiko eta alderdikoiak salatzen ditugu. Askapenaren bitartez eta elkartasun internazionalistaren baitan euskal udalek burututako jardunari zilegitasuna kendu izana gaitzesten dugu. Espainiar fiskaltzaren erabakia Euskal Herriko gatazkaren konponbidean arduragabekeriaz ipinitako oztopoa dela uste dugu.

Horrexegatik guztiagatik Udal honek honakoa adierazten du:

- 1) Elkartasun internazionalista bultzatzeko lanean diharduten erakunde eta pertsona guztiekiko babesia;
- 2) Askapena, Askapeña, Herriak Aske eta Elkar Truke-rekiko nahiz inputatutako bost euskaldun internazionalistekiko elkartasuna;
- 3) Askapena, Askapeña eta Elkar Trukek egiten duten lana ez oztopatzeko exigentzia;
- 4) Walter Wendelin, Gabi Basañez, Unai Vazquez, Aritz Ganboa eta Dabid Soto euskaldun internazionalisten aurkako epaiketa euren absoluzioaz amaitzeko, dagozkien eskubideak itzultzeko eta zor zaien erreparazioa emateko erreklamazioa."

Bozketara jarri ondoren, Udalbatzak, bertaraturiko EHBILDU (5) alderdiko lade botoekin, mozioa onartu da.

4) ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREN GAINEKO ZERGAREN SALBUESPENA.

Alkate jaunak dio pasa den abuztuan izan diren kazkabar eta euriteak kalte ugari sortu dituztela herriko eraikuntzetan, batik bat, teilatu-hoditan. Hori dela eta, bere proposamena da kalte horien konponketa lanei dagokion obraren zerga salbuetsita izatea.

Bertaraturiko EHBILDU alderdiko bost zinegotzien adostasunez proposamena onartzen da.

5) GALDE-ERREGUAK.

Ez dago galde-erregurik.

Eta, aztertzeko bestelako gairik ezean, Udalbatza amaitutzat eman da, eta jorratutako gaiak eta hartutako erabakiak aktan jaso daitezten, nik, idazkariak, agiri hau luzatu dut alkatearen oniritziarekin.

